

Joanes Lopez, Inkisizioak Granadan erre zuen zeraindarra

«Fikzioa eta dibulgazioa» uztartu ditu Patri Urkizuk existitu zen baina oso gutxi ezagutzen den erasmista gipuzkoarrari buruzko 'Suaren froga'-n

NEREA AZURMENDI

DONOSTIA. Joanes Lopez Zeraingoak (Zerain, 1488-Granada, 1530) ez du tarterik entziklopedietan. Google-en oraintxe hasi da azaltzen, Patri Urkizu Sarasualetxearen eskutik argitaratu duen 'Suaren froga' eleberriri esker.

Hala ere, existitu zen, eta ez zuen bizimodu arrunta izan, are gutxiago heriotza, 42 urte zituela Inkisizioak erre baitzuen Granadan, «dotrina berriaren hereziak kutsatutako hiru liburuxka idazteagatik». Erasmoren proposamenak zabaltzeagatik, alegia.

Bost hamarkada hartzen dituen ibilbide oparoan ikerkuntza, irakaskuntza eta sorkuntza uztartu ditu Urkizuk. Atzo Donostian aurkeztu zuen 'Suaren froga' ez da ikerlan bat, ezta historia lezio bat ere, «dibulgazioa eta fikzioa» uztartzen dituen eleberririk historikoa baizik, non egileak, betiere egian-


tzekotasuna asko zainduta, istorioak sortzeko duen trebezia baliatu duen zeraindar erasmistaren inguruko ikerketak bete ezin izan dituen hutsuneak osatzeko.

La kasualitatez egin zuen topo Urkizuk Joanes Lopez Zeraingoarekin, Parisko La Procure liburudendan aurkitu zuenean Marcel Bataillon-en 'Erasmus et L'Espagne. Recherche sur la vie spirituelle du XVI siècle' tesia, 1937an argitaratua: «Horren irakurketan murgildurik nengoela begiak hautatu zidan nire nobelaren süjeta, zuberotarrek dioten bezala: ezezaguna nuen Joan Lopez de Zerain. Honen bizitzaren eta obraren albiste gehiago jakitea interesgarri iruditu zitzaidan. Banuen gaia».

Hutsuneak bete

Liburu hartan irakurri zuen alegia zeraindarra Granadako Inkisizioak erre zuela 1530ean. «Kurirositateak, jakin minak bultzatu ninduen, bada, garaian sakontzera, zeraindarri buruzko albiste eta zehaztasun gehiago bilatzera», esan zuen idazleak.

Iturri askotara jo behar izan du XV-XVI. mendeen arteko zubia igaro zuen gipuzkoarraren ingurua eta ibilerak argitzeko, Lopez Zeraingoak ez baitzuen arrasto



Patri Urkizuk atzo aurkeztu zuen eleberria Donostian. I.E.

handi eta nabarmenik utzi. Hala ere, Madrilgo Archivo Histórico Nacional-en topatu zuen «Inkisizioak Joanes Lopez Zeraingoari egindako itaunketa krudel eta latzaren lekukotasuna».

XVI. mendeko lehen herenean sakontzean, testuingurua eman zion Inazio Loiolakoaren eta Juan Sebastian Elkanoren garaikide izan zen zeraindarri, baina haren nondik norakoak, neurri handi batean, asmatu egin behar izan ditu, nahiz eta izugarri ondo dokumentatutako eleberria izan.

Hala, pentsatu zuen «lehenbiziko pausoa eman zezakeela Donemiliagan, eta ondoren Salamancan, euskaldunekin harremanetan, ikasle eta gero irakasle. Nola 'kutsatu' zen eta liburu heretikoekin nola nahastu zen» azaltzeko «Okzitaniako Tolosara eramanean nuen ikastera, gero Pariserara. Eta oraindik goraxeago iparrerialderantz, Bruggera», non aukera handiak izango zituen erreformistekin topo egiteko.

Euskaldun ugari zeuden Carlos V.ren gortera ere bidaliko du,

SUAREN FROGA
PATRI URKIZU

Generoa: Nobela historikoa.
Argitaletxea: Erein.
Orrialde kopura: 256. Salneurria: 18 euro.

pentsatuz giro horretara hurbilduko zela «han ikasiak hemen barreiatzeko». Kargu handiak izan zituen Joanesek. Horieta bategi eraman zuen Granadara.

Berak, baina, karguaren ardurak betetzeaz gain bazuen beste misio bat: moroak kristautzea, Erasmoren dotrina berriaren arabera. Xede horrekin, aditua zenez hizkuntzatan, 'Arte y vocabulario de la lengua arábica' idatzi zuen, «zabal dadin misiolariaren artean hobeto bete dezaten euren eginkizuna. Tamalez, ez dut aurkitu inon, ez eta ere dotrina berria irakasten duten liburuxkak».

Patri Urkizuk adierazi zuenez, «Erasmus, Loiola eta Lutero estremistekin konparatuz, tolerantzia eta moderazioaren eredu litza-teke. Zeraindarra haren jarraitzaileetarik bat legez kontsideratu dugu, gizon moderatua».

Moderazioak ez zion lagundu Inkisizioaren zigorra saihesten, baina eleberririk badu, Inazio Mujika Iraola editorean nabarmendu duenez, muturreko joeren aurkako eta tolerantziaren aldeko aldarritik. Eta, batez ere, aukera ematen du Urkizuren idazkeraz gozatuz «gure historian ia erabat ezezaguna zen pertsona bat berreskuratzeko».

El Instituto de Arquitectura estrena un ciclo de cine al aire libre en Tabakalera

'I-go zinemara' proyectará películas los viernes en la terraza, como complemento de la exposición 'Eileen Gray: E.1027'

R. KORTA

SAN SEBASTIÁN. Las noches de película llegan mañana al Instituto de Arquitectura de Euskadi con el programa de cine al aire libre 'I-go zinemara' que se proyectará los viernes en la terraza de Tabakalera hasta el 10 de septiembre. Serán ocho largometrajes en versión original con subtítulos que complementan la exposición 'Eileen Gray: E.1027' en el Instituto de Arquitectura de Euskadi, que lo organiza en colaboración con la Escuela Técnica Superior de Arquitectura (ETSA) de la UPV/EHU y Elías Querejeta Zine Eskola



Ekain Olaizola, José Ángel Medina, Harkaitz Millán e Izaskun Aseguinolaza presentaron ayer el ciclo.

(EQZE). «La terraza es un espacio de oportunidad único en la ciudad, que a través de pequeñas intervenciones podemos activar para desarrollar diferentes programas públicos como este ciclo de cine», explicó ayer el director del Insti-

tuto de Arquitectura de Euskadi, José Ángel Medina.

El ciclo comienza mañana con la película 'Le Mèpris' (1963), de Jean Luc Godard, que analiza el tratamiento de la arquitectura doméstica vacacional para el vera-

no a través del cine. Tras una presentación a las 21:45, la proyección comenzará a las 22 horas. El mismo horario seguirán el resto de los largometrajes, entre los que se encuentran títulos como la oscarizada 'Parasites' (2019), de Bong Joon-ho, o el clásico sueco 'Persona' (1966), Ingmar Bergman. La entrada es gratuita y se obtiene vía web.

'I-go zinemara' es una puesta en práctica de la investigación tras el proyecto 'Arquitectura del Cine', centrado desde octubre de 2020 en el desarrollo del espacio arquitectónico destinado al cine y el lugar que ocupa en la ciudad. Está impulsado por EQZE en colaboración con la ETSA de la UPV/EHU, y cuenta con la participación de especialistas y estudiantes de ambos campos.

En paralelo al ciclo de cine, ambas escuelas han estudiado las posibilidades de proyección en los diferentes espacios de dos edificios de la ciudad, la Iglesia de Iesu y el propio Instituto de Arquitectura. Es en una pequeña muestra que se ha instalado en la planta 0 del edificio, donde se exhiben parte de los resul-

PELÍCULAS

- **23 de julio:** 'Le Mèpris' (1963), de Jean-Luc Godard.
- **30 de julio:** 'Somewhere' (2010), de Sofia Coppola.
- **6 de agosto:** 'Youth' (2015), de Paolo Sorrentino.
- **13 de agosto:** 'The Ghost Writer' (2010), de Roman Polanski.
- **20 de agosto:** 'Persona' (1966), de Ingmar Bergman.
- **27 de agosto:** 'Kékszakkallú' (2016), de Gastón Solnick.
- **3 de septiembre:** 'Parasites' (2019), de Bong Joon-ho.
- **10 de septiembre:** 'Keller' (2005), de Eva Urthaler.

tados del proyecto 'Arquitectura del Cine'. «Donostia es una ciudad que cuenta con un festival de cine internacional y una escuela de arquitectura. Eso la convierte en el laboratorio ideal para investigar en torno a nuevos espacios de exhibición, adaptados a los retos del futuro», explicó Ekain Olaizola, que además de investigador es el director del proyecto en la escuela Elías Querejeta.